



GASTEIZKO ERIZAINZAKO
UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA
DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

JOKABIDE SUIZIDAREN PREBENTZIOA: LARRIALDIETAKO ERIZAINAK DETEKZIO GOIZTIARRERAKO DITUEN ESKALAK

Gradu amaierako lana



GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA

Egilea: Aitor Larrea Sebal
Zuzendaria: Jaione Santiago Garín
Hitz kopurua: 5699
Data: 2020/03/29

AURKIBIDEA:

SARRERA.....	4
ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
HELBURUA.....	10
METODOLOGIA.....	11
• DISEINU MOTA	11
• BILAKETA PROZESUA.....	11
• ARTIKULUEN AUKERAKETA	11
○ Barneratze irizpideak	11
○ Kanporatze irizpideak.....	12
• AZTERTZEKO ETA INTERPRETATZEKO PROZESUA	13
EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	14
• Columbia-Suicide Severity Rating Scale (C-SSRS) eskala.....	15
• Ask Suicide-Screening Questions (ASQ) eskala	15
• Risk of Suicide Questionnaire (RSQ) eskala.....	16
• Suicidal Ideation Questionnaire (SIQ) eta Suicidal Ideation Questionnaire Junior (SIQ-JR) eskalak	16
• a) Eskala pasatzeko behar den denbora	18
• b) Formatuaren sinpletasuna	18
• c) Eskalaren interpretazio eta ebaluazioa	19
• d) Eskala pasatzeko formakuntza	19
ONDORIOAK ETA INPLIKAZIOAK.....	21
MUGAPENAK ETA ZAILTASUNAK.....	23
BIBLIOGRAFIA.....	24
ERANSKINAK.....	27
• 1. ERANSKINA: <i>Kontzeptu-taula</i>	27
• 2. ERANSKINA: <i>Bilaketa-prozesua</i>	30
• 3. ERANSKINA.....	36
○ Ikerketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua	36
○ Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoak	38

- 4. ERANSKINA: *Fluxu diagrama* 41
- 5. ERANSKINA: *Kontsultatutako literaturaren laburpen taula* 42
- 6. ERANSKINA: *Zuhaitz kategoriala* 57
- 7. ERANSKINA: *Screening eskalak* 58
 - Columbia-Suicide Severity Rating Scale (C-SSRS) eskala 58
 - Ask Suicide-Screening Questions (ASQ) eskala 61
 - Risk of Suicide Questionnaire (RSQ) eskala 62
 - Suicidal Ideation Questionnaire (SIQ) eskala 63
 - Suicidal Ideation Questionnaire Junior (SIQ-JR) eskala 64

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Suizidioa, gaur egun, mundu mailan dauden heriotzen hirugarren kausa nagusia izanik eta azken urte hauetan nerabeen heriotza-tasa nabarmen igoarazten ari dela kontuan izanik, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) prebentzio neurri desberdinak martxan jartzen hasi da egoera honi amaiera emateko. Honen aurrean, suizidioak prebenigarriak direla baieztatu da eta osasun sistemari dagokionez, suizidioaren detekzio goiztiarrak garrantzi handia hartu izan du. Honetarako, larrialdi zerbitzuak detekzio gune garrantzitsuak bihurtu dira, bertako triajearen erizainak pazienteekin lehenengo kontaktua izaten baitu. Bertan, erizainak detekzioerako baliabide desberdinak erabil ditzake, hauen artean zenbat eskala.

Helburu orokorra: Nerabeen jokabide suizidak prebenitzeko larrialdietako unitatean erizainek erabiltzen dituzten detekzio goiztiarrerako eskalen erabilgarritasuna aztertzea.

Metodologia: Literaturaren errebisio bibliografiko honetarako helburuari erantzuteko artikulak lortzeko PUBMED, CINAHL, CUIDEN, COCHRANE eta JBI datu baseak kontsultatu ziren. Honetaz gain, praktika klinikorako gidetan zenbait bilaketa egin ziren, hauen artean RNAO, NICE eta GUIA SALUD kontsultatuz. Jarraitzeko, eskuzko bilaketak ere burutu ziren, alde batetik Science Direct editorialean eta bestetik, landutako artikuluetan behin baino gehiago agertutako Asociación Española de Pediatría eta PRESENCIA aldizkarietan. Artikuluen aukeraketari zegokionez, 2009. urtetik gaur egunera arte argitaratutako artikulak aztertu ziren. Hizkuntzari zegokionez, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzitako artikulak kontuan izan ziren.

Hitz gakoak: Erizain balorazioa, prebentzioa, jokabide suizida, nerabea eta larrialdiak.

Emaitzak eta eztabaida: Helburuari erantzuteko 19 artikulua hautatu ziren. 2 ausazko ikerketa kuantitatibo esperimentalak ziren, 6 ikerketa kuantitatibo deskriptibo trasbertsalak, 6 kohortezko aurrerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko, kohortezko atzerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko 1, 2 literaturaren berrikusketak, berrikusketak sistematiko 1 eta azkenik praktika klinikorako gida 1. Ikerketa hauen arabera, nahiz eta SIQ eta SIQ-JR izan estatistikoki emaitza esanguratsuenak lortu zituztenak, erabilgarritasuna zehazten duten kategoriei erreparatuz, ASQ eta RSQ eskalak ziren denbora, formatua, interpretazioa eta ebaluazioa eta formakuntzaren irizpideetara gehien hurbiltzen zirenak.

Ondorioak eta inplikazioak: Landutako artikuluen arabera nahiz eta eskala guztiak jokabide suizidaren detekzio goiztiarrerako propietate psikometriko egokiak izan, larrialdi zerbitzuetara moldatzeko momentuan erabilgarritasunari begira, ASQ eta RSQ eskalak erabilgarrienak izango lirateke baina RSQ eskalaren fidagarritasunaren baloreak minimoak izanik, ASQ eskala izango litzateke erabilgarriena. Honetaz gain, literaturaren bilaketa egin ondoren aurkitutako eskalen inguruko eraginkortasunaren inguruan oso ikerketa gutxi burutu dira orain arte, Beraz, gai honen inguruan ikerketa gehiago behako lirateke, ebidentzia maila altuagoarekin.

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Suizidioa, mundu mailan, gaur egungo osasun baliabideen kontsumo eta heriotza-tasa altuenak dituen gertakarietako bat da, osasun publikoko arazo garrantzitsua bihurtuz¹⁻³. Munduko Osasun Erakundeak (MOE), suizidioa edo bere buruaz beste egitea, horrela definitu zuen: helburu hilgarria duen ekintza, norberak nahita hasia eta egina, heriotza helburua dela espero eta jakinaren gainean izanik, non, honen bitartez aldaketa bat bilatzen den^{1,3-8}.

MOE-k emandako datuen arabera, suizidioa, mundu mailan heriotza tasa altuena duen hamahirugarren eta heriotza bortitzen lehenengo kausa da, urteko heriotza tasa 14,5 100.000 biztanlekoa izanik¹. Urtean, milioi bat pertsona ingururen heriotza suposatzen du, hau da, biztanleria osoaren %0.5-2a^{3,9}. Mundu mailan, 40 segundoko, pertsona batek bere buruaz beste egiten du^{6,7,9}.

Espainiako datuei erreparatuz, esan beharra dago Europako tasa baxuena duen estatuetako bat dela, nahiz eta, gaur egun, tasa honen hazkuntza nabarmena izan beste estatuekin konparatuz^{3,10}. Espainian, suizidioa, heriotzen lehen kanpoko arrazoia da^{6,9,10}, zehazki, trafiko-istripuen ondorioz gertatutako heriotzen bikoitza⁹. Espainiako Estatistika Institutuaren (Instituto Nacional de Estadística, INE) arabera, 2016an, 3569 pertsona suizidatu ziren, heriotza tasa 8,3 100.000 biztanlekoa izanik, hau da, eguneko 10 pertsona; orduko 2,5^{3,6,9}.

Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, 2016an 179 suizidio eman ziren Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), hau da, batez beste, suizidio 1, 2 egunean behin, 100.000 biztanleko 7,67ko heriotza tasa izanez⁹.

Datu horiek oso kezagarriak dira, batez ere kontuan hartuta maiztasun horrek azken 60 urteetan %50eko igoera izan duela. Aurreikusitakoaren arabera, 2020. urtean buruaz beste egingo duten pertsonak 1.53 milioi izango dira, heriotza tasa %50eko proportzioan igota^{1,9,10}.

Honetaz gain, kontuan izan behar da, suizidioarekin lotutako tasak orokorrean gutxietsita daudela; detekzio programen gaitasun gabeziagatik zein suizidioa kausa diren zenbait heriotza, istripuztat hartzeagatik. Beraz, suizidioaren inguruko datu errealak lortzean zailtasun handiak egoten dira^{6,11}.

Egoera honen konplexutasuna ulertzeko, suizidioa bere osotasunean aztertu behar da, egoera honen atzetik dauden kontzeptu desberdinak aztertuz¹⁰. Lehenik eta behin, jokabide suizida dago. Hau modu jarrai batean agertzen diren zenbait alderdi kognitibo zein konduktualen elkarrekintza moduan ulertu behar da, besteak beste, ideia suizidak, suizidio mehatxua, parasuizidioa edo suizidio saiakera eta suizidioa bera^{3-6,10,12}. Jokabide suizida, etapa hauetaz osatuta dago, askotan bata bestearen atzetik agertzen dira, baina ez beti¹².

Jokabide suizida konplexua da, askotariko eta elkarri lotutako arrisku-faktore eta arrazoi biologiko, psikologiko, sozioekonomiko, moral eta/edo kulturelei lotuta baitago. Faktore horiek maila indibidualak, pertsona artekoak, komunitarioak eta sozialak hartzen dituzte eraginpean, eta,

gainera, aldatu egin daitezke denborarekin^{2,5,6,9,13}. Jokabide hau, egoera bortitz baten aurrean, gure ingurura egokitze mekanismoek huts egin dutenaren adierazle da⁵.

Esan beharra dago jokabide suizidaren oinarrian, ideia suizida dagoela, hau da, nor bere burua zauritzeko edota heriotza eragiteko pentsamendua, behin eta berriz agertzen dena. Bestalde, adierazten diren pentsamendu edo ideia horiek, planifikatu gabe edo planifikatutakoak izan daitezke^{3,4,8}. Azkeneko hauek, zaurgarritasun handiagoko adierazleak dira suizidio saiakera bilaka daitezkeelako; hau da, buruan dabilzan ideia horiek burutzerara eramanez, suizidioan amaituz⁸.

Jokabide suizidaren etapak larritasunaren arabera ordena daitezke, gutxienetik gehienara; ideia suizida, mehatxua, saiakera eta azkenik suizidioa bera³.

Etapen hauen artean, ideia suizidak ohikoenak dira, esaterako, suizidioaren zifra baino 20 aldiz handiagoak^{4,9}. Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Osasun Inkestako (AEOI) datuen arabera, EAEn biztanle guztien %3,1ak pentsatu dute noizbait beren buruaz beste egitea⁹.

Suizidio mehatxua, norberaren bizitza arriskuan jartzen ez duen hitzezko edo hitzik gabeko adierazpen multzoa da, suizidio saiakera baten ekintzez jarraitua edo ez dagoena. Espresio hauen bitartez, ingurukoek suizidio intentzio hauetaz ohartzea bilatzen da^{3,8}.

MOE-k, parasuizidioa edo suizidio saiakera, horrela definitzen du: Zorigaitzoko emaitza ez dakarren ekintza, beste pertsona baten laguntzarik gabe, nor bere burua zauritu edo zenbait substantzia hartzen dituen zenbait aldaketa lortzeko egungo egoeran edota norberaren egoera fisikoan^{1,3,6}. Parasuizidioa, norberaren bizitza arriskuan jartzen duen baina heriotzera heldu ez den ekintza da. Suizidio saiakera honek heriotza helburu moduan izan dezake edo ez. Kasu batzuetan, mehatxu moduan erabiltzen da atentziora deitzeko edota besteak manipulatzeko baina kasu honetan, arriskuak diren ekintzak aurrera eramanez dira. Honetaz gain, beste zenbait kasutan, sufrimenduekin amaitzeko helburuekin aurrera eramanez da suizidioa ekintza, beraz, saiakera honen bitartez beraien sufrimenduekin amaitzeko gogoaz azaleratzen dute^{12,13}.

Jokabide suizida bizi ziklo osoan zehar agertu daitekeen arren, nerabezaroa da etaparik zaurgarrietakoa. Momentu honetan, nahiz eta suizidio kopurua zahartzaroarekin konparatuz ez den ain nabarmena, suizidio ideien hazkuntza ematen da¹⁴.

MOE-k nerabezaroa horrela definitzen du: Giza hazkuntza eta garapen aldia, haurtzaroaren eta helduaroaren artean kokatzen dena, hau da 10-19 urte bitartean¹⁵. Hauen kasuan, suizidio bakoitzeko, 100-200 ideia suizida berri agertzen dira eta zaharren kasuan, 4.a¹⁴. Alde hau nerabezaroaren ezaugarri bereziak direla eta azaldu daitezke. Izan ere, bizitzako etaparik biziena eta agian konplexuena da, non gazteek zenbait erantzukizun bere gain hartu eta independentzia sententzia berriak nabaritu dituzte. Norberaren identitatea bilatzeko sasoia da, haurtzaroan ikasitako baloreak praktikan jarri eta beraien gaitasunak garatuko dituzte^{2,15}.

Kontuan izan behar dugu, garai honetan, bizitzan zehar agertuko diren arazo desberdinei aurre egiteko gaitasuna garatzen dela. Baita ere, beraien ekintzen ondorioetatik ohartarazten hasten

direla eta fisiologikoki, nerabearen neurosiaren adierazpena bortitzagoa dela. Beraz, bizitzako arazoei erantzun bat ematen saiatzean pentsamendu suizidak agertzea nerabearen garapeneko prozesu normala dela esan daiteke².

Hau arazo bihurtzen da, nerabeak, buruhaustetzat hartzen dituen egoera guztiei pentsamendu suiziden bitartez irtenbide bat bilatzen saiatzen denean. Hau horrela izanda, suizidio arriskua dagoela esan dezakegu^{2,8}.

Nerabezaroa, orokorrean, morbiltate eta hilkortasun gutxiko etapa izan arren⁴, suizidioa, nerabeen artean, heriotza-tasa altuenak dituen bigarren kausa da, mundu mailan urtean 4300 gazteren suizidio egonik, hau da, mundu mailako gazteen %1,5a (MOE)^{11,16}.

Datu guzti hauetaz gain, ez dugu ahaztu behar jokabide suizidak familiarengan edota inguru sozialean sortzen duen inpaktu psikologikoa. Ezin dira pertsona hauek albo batera utzi, azken finean, suizidioa, seguru aski, heriotza mota etsigarrienetakoa eta estigma negatibo nabarmena duelako. Egoera honek ingurukoengan min eta sufrimendu handia sortzen du, egin ahal zutenaren eta egin ez zutenaren errua beraien baitan izango dutelako. Egoera hau mingarria izateaz gain, inguruko pertsonengan lotsa, haserre, beldur eta erru sentimenduak agertzen dira, gerora, antsietate eta depresio trastornoak agertzeko arriskua handituz. Honekin lotuta, zailtasun interpersonalak agertzen dira baita ere, isolamendura eramanez eta dolu prozesua erabat zailduz. Hau ikusita, inguru soziala ere kontuan izan behar da arreta psikologikoa eskainiz, dolu prozesua gainditzeko^{13,17}.

Datu guzti hauek ikusita, kontuan izan behar dugu suizidioak prebenigarriak direla eta badaudela neurri eraginkorrek horretarako. Honen aurrean, MOE-k hurrengo neurriak proposatzen ditu: nork bere burua lesionatzeko edota buruaz beste egiteko baliabideen irisgarritasuna mugatzea, modu arduratsu batean komunikabideen bitartez suizidioari buruz informazioa ematea, suizidio arriskua duten pertsonen babesa bultzatzea, eta osasun sistemari dagokionez, suizidio arriskuaren detekzio goiztiarra bultzatzea eta jokabide suizidak modu eraginkorrean tratatzea^{6,9}.

Urteak aurrera joan ahala, nerabeen artean suizidio ideiak eta buruaz beste egiteak gora egiten ari dira, hauen heriotza-tasa nabarmen handituz. Hau dela eta, geroz eta ikerketa eta prebentzio plan gehiago populazio honetara bideratzen dira⁸.

Suizidioaren prebentzioarako ekintzak, batez ere lehenengo eta bigarren mailako prebentziora bideratzen dira. Lehenengo mailako prebentzioa, suizidio ideiak agertu baino lehenagoko ekintzak izango dira, adibidez, Euskadiko osasun-arloko egungo estrategia eta jardun-jarraibideei erreparatuz, nerabeen kasuan, laguntza eskatzen irakatsi, beraien emozioei buruz hitz egitera bultzatu, droga, sexua edota eskola-porrota bezalako gaiei buruz hitz egitea izango lirateke ekintzetako batzuk^{9,13}.

Bestalde, bigarren mailako prebentzioa, behin jokabide suizida agertutakoan burutuko diren interbentzioak izango dira, gehien bat detekzio goiztiarrera bideratuta, gerora interbentzio desberdinak martxan jartzeko⁶.

Detekzio goiztiarrerako, gehien bat erabiltzen den baliabidea eskalak dira. Balorazio eskala hauek ebaluatzeko modu anitz daude, besteak beste, analisi psikometrika eta erabilgarritasuna. Lehenengoari dagokionez, fidagarritasuna (Cronbach-en alfa koefizientea kontuan izanik), barne kontsistentzia (Pearson korrelazioa aztertuz) bezalako parametro kontuan hartzen dira. Beste aldetik, erabilgarritasuna aztertu daiteke, azken finean, eskala bat ez da erabilgarria izango hau pasatzea zaila, konplexua edota neketsua bada. Modu honetan, eskala pasatzeko behar den denbora, formatuaren sinpletasuna, profesionalen formakuntza eta beste zenbat faktore kontuan hartzen dira¹⁸.

Detekzio goiztiarrak pisu handia dauka suizidaren prebentzioan, azken finean, jokabide suizidaren oinarrian dagoen ideia suizida detektatzeak jokabide suizida errotik moztea suposatuz dezakeelako. Hau lortzeko, honezkero zehaztu gabe dagoen jokabide suiziden balorazio eta jardunbideen protokolizazioa behar da¹⁹.

Detekzio goiztiarrerako, larrialdi zerbitzuak gune klabea bihurtu dira, paziente suiziden biziraupenerako beharrezkoak. Zerbitzu honetatik, azken finean, suizidio saiakerak egin dituzten pertsonak zein saiakerarik gabe, suizidio arriskua duten pertsonak pasatzen dira, beraz, suizidioaren prebentziorako zein interbentzioekin hasteko gunea da^{14,16}.

Kontuan izan behar dugu, suizidio saiakera bat dela eta, larrialdietara joan diren pazienteen artean, %25ak baino gehiagok beste saiakera bat egiten dutela eta hauetako %5-10ak suizidioan bukatzen duela¹⁴.

Honetaz gain, gutxi gora behera, 1.5 milioi nerabek osasun sistemarekin kontaktuan jartzeko, larrialdiak dituzte aukera bakar gisa, hau dela eta, suizidio saiakera baten ostean emergentzietara heltzen diren gazteen prebalentzia gora egiten ari da¹⁹.

Hau kontuan izanik, larrialdi zerbitzuak jokabide suiziden balorazioa edota balorazio psikiatriko bat egiteko gune egokiak bihurtu dira, plan terapeutiko desberdinekin hasteko edota beharrezkoak diren deribazioak burutzeko¹⁹.

Jokabide suizidaren baloraziorako, momentu oro, arrisku faktoreak, babes faktoreak zein alarma seinaleak kontuan izan behar ditugu, arrisku faktoreen presentziak, arriskua modu akumulatibotean handitzen baitu^{6,9}.

Ondorengo arrisku faktoreak izan behar ditugu kontuan; adina (suizidio saiakerak ohikoagoak dira nerabeen artean nahiz eta suizidio tasak altuagoak izan urteak aurrera egin ahala), sexua (suizidio ideiak eta saiakerak 3-4 aldiz ohikoagoak dira emakumetan suizidioa bera ohikoagoa izan gizonetakoetan), disfuntzio familiarra, depresioa, jokabide arazoak (drogak, alkoholismoa eta abar), antsietatea eta batez ere aurretiko suizidio saiakerak (suizidio saiakera bat burutu duten pertsonen %50ak bere buruaz beste egin du)^{2-6,8,12,13}.

Arrisku faktoreen aurka, babes faktoreak daude, lehen mailako prebentzioko interbentzio asko babes faktoreak indartzera zentratuz. Hauen artean, faktore indibidualak (gizarte-trebetasunak, arazoak konpontzeko gaitasuna, autoestimua altua, aurre egiteko estrategia egokiak eta abar),

norberaren balioak edo arauak, kanpoko faktoreak (osasun-bitartekoen eskuragarritasuna, gizarte- eta familia-sare egokia eta abar) eta suizidioaren edo nahasmendu mentalen ezagutza eta agerikotasun sozial handiagoa dakarten eta laguntza bilatzeko aukera errazten duten gizarte- eta kultura-faktorea^{6,9}.

Alerta-seinaleek pertsonak suizidio-arrisku handiagoa izan dezakeela adierazten dute. Pertsona batzuen bizitzaren etapa jakin batzuetan normalak izan badaitezke ere, zaindu egin behar dira arrisku-faktoreak dituzten pertsonen kasuan. Seinale horiek fisikoak, portaerari lotutakoak edo hitzezkoak izan daitezke. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: nork bere burua abandonatzea, gizarte- eta familia-isolamendua, ausarkeria handiko portaerak eta espero ez diren beste jokabide batzuk, hala nola utzitako asmo batzuk betetzea, pertsonarentzat baliotsuak diren gauzak oparitzea eta ezohiko agurrak egitea, pertsona ikusteko azken aukera balitz bezala^{6,9}.

Faktore hauek kontuan izateaz gain, jokabide suizida ebaluatzeko, larrialdi zerbitzuetan, erizainak burutzen duen triajea, hau da, pazientearen egoeraren lehendabiziko balorazioa kontuan izan behar dugu. Triajea, pazientearen larritasunaren eta behar dituen asistentzien arabera, modu azkar batean (5 minutu inguru) sailkatzeko modu bat da²⁰. Triaje honetara heltzen diren pazienteen %20ak²¹, arreta psikiatrikoa behar du, beraz, erizainak, pazientearen zein familiaren balorazio orokor azkar bat egiteaz gain, osasun mentala baloratzeko gai izan behar da^{21,22}. Triajeko balorazio psikiatrikoa egiteko bi tresna ditugu; alde batetik elkarrizketa klinikoa, non harreman terapeutikoa lortuz jokabide suizidari buruzko informazioa lortzen den eta beste aldetik ebaluazio eskalak⁶.

Guzti hau ikusita, esan daiteke larrialdi zerbitzuak leku egokiak direla jokabide suizidaren detekziorako, hortaz, jakin nahiko nuke zer eskala erabili daitezkeen eta eskala hauen erabilgarritasuna zein den.

HELBURUA

Nerabeen jokabide suizidak prebenitzeko larrialdietako unitatean erizainek erabiltzen dituzten detekzio goiztiarrerako eskalen erabilgarritasuna aztertzea.

METODOLOGIA

DISEINU MOTA

Literaturaren errebisio kritikoa

BILAKETA PROZESUA

Lana burutzeko ondorengo datu baseak kontsultatu ziren: PUBMED, CINAHL, CUIDEN, COCHRANE eta JBI

Bilaketarekin hasi baino lehen, helburu orokorretik ondorengo hitz gakoak atera ziren: **Erizain balorazioa, prebentzioa, jokabide suizida, nerabea eta larrialdiak**. Behin hitz gakoak finkatuta, hauen sinonimo zein antonimoak bilatu eta hauek ingelesera itzuli ziren, zerrenda bat osatuz. Hitz gakoak gazteleratik ingelesera itzultzeko, DeCS programa erabili da eta hitz hauen sinonimoak lortzeko, MeSH (Medical Subject Headings) lengoaia kontrolatuko hiztegia erabili zen. Honetaz gain, hitz gakoen sinonimo gehiago lortzeko, lortutako artikuluetan erabili ziren sinonimoak ere kontuan izan ziren, sinonimoen zerrenda osatuz. Behin hau eginda, datu base bakoitzeko deskriptoreak bilatu eta zehaztu ziren (**1. Eranskina: Kontzeptu-taula**).

Behin hitz-gakoen eta hauen sinonimoen taula osatuta, datu base desberdinetan hitz gakoak elkartuz ekuazio desberdinak sortu ziren AND eta OR operadore booleanoak erabiliz . Datu base guztietan ekuazio berdinarekin hasi zen, aurkitutako artikuluen arabera, hitz gakoak aldatuz edota hauen sinonimoak erabiliz ekuazio berriak sortuz.

Datu baseetan bilatzeaz gain, Praktika Klinikorako Gidak bilatzeko RNAO, NICE eta GUIA SALUD erabili ziren.

Azkenik, bilaketa zabala bermatzeko eskuzko bilaketa ere burutu zen SCIENCE DIRECT plataforma digitalean, Asociación Española de Pediatría eta PRESENCIA aldizkarietan (**2. Eranskina: Bilaketa prozesua**).

ARTIKULUEN AUKERAKETA

Lehenik eta behin hurrengo barneratze eta kanporatze irizpide zehaztu ziren.

Barneratze irizpideak

Argitalpen data: Azken 10 urteetan argitaratu ziren artikulua aukeratuko ziren, hau da, 2009. urtetik gaur egun arte argitaratu zirenak. Denbora tarte hau helburuari erantzuteko artikulua

gehiago biltzeko helburuarekin ezarri zen, baina aldi berean, lortutako informazioa eta datuak eguneratuta egoteko asmoz.

Argitaratutako artikulu motak: Jasotako informazioa, lehen mailako (aldizkariak) eta bigarren mailako iturrietatik (datu baseak) lortu ziren, lortutako informazioak ebidentzia maila altua izan zezan.

Argitalpen hizkuntza: Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez idatzitako artikuluak kontuan izan ziren, hauek baitira egileak menperatzen zituen hizkuntzak.

Lagina: 10-19 urte bitarteko nerabeak kontuan hartu ziren, MOE-ren arabera hau baita nerabeen adin tartea. Lagin honen inguruan hitz egiten zuten artikuluak kontuan izango ziren.

Kokalekua: Larrialdietan burutzen ziren ikerketak kontuan hartuko ziren. Artikuluetan egindako ikerketetan, kokaleku hau kontuan hartzen bazen, nahiz eta beste kokaleku batzuk ere aipatu, artikulu hori onartuko zen.

Aztergaia: Alde batetik, jokabide suizida prebenitzeko eskalak aztertzea zen helburu, beraz, honen parte diren ideia suizidak, suizidio saiakerak eta suizidioa aztertuko zuren, hauek aipatzen zituzten artikuluak onartuz. Bestalde, 2. Mailako prebentzioa kontuan hartzen zituzten artikuluak kontuan hartuko ziren (detekzio goiztiarra), nahiz eta beste prebentzio maila desberdinak ere agertu. Azkenik larrialdietako erizainek burututako prebentzio eskuhartzeen inguruan hitz egiten zuten artikuluak kontuan hartuko ziren.

Kanporatze irizpideak

Argitalpen data: 2009. urtea baino lehen argitaratutako artikuluak baztertuko ziren

Argitaratutako artikulu motak: Adituen iritziak, tesiak... eta hauek baino ebidentzia zientifiko baxuagoa dituzten iturriak baztertu ziren, informazioa fidagarria izateko.

Argitalpen hizkuntza: Egileak menperatzen ez zituen hizkuntzetan idatzitako artikuluak baztertuko ziren.

Lagina: 10-19 urte bitarteko lagina kontuan hartzen ez zituzten artikuluak baztertuko ziren.

Kokalekua: Larrialdi zerbitzuak kontuan hartzen ez zituzten artikuluak baztertuko ziren.

Aztergaia: Alde batetik jokabide suizidak kontuan hartzen ez zituzten gaiak baztertuko ziren. Beste aldetik, 2. mailako prebentzioa kontuan hartzen ez zituzten artikuluak baztertuko ziren eta azkenik, larrialdietako erizainaren figura kontuan hartzen ez zituzten artikuluak baztertuko ziren.

Behin filtroak ezarrita eta emaitza totalak izanda, lortutako artikulu guztien izenburuak irakurri ziren eta helburu orokorrari erantzuten ez zioten artikuluak baztertu ziren. Ondoren, hautatutako artikuluen izenburuak eta laburpenak (abstract-ak) irakurri ziren, berriz ere gaiarekin bat ez

zetozen artikulua baztertu. Honetaz gain, datu baseetan lortutako artikulua banan-banan irakurrita errepikatutako artikulua baztertu ziren emaitza totaletik. Jarraian, lan honetarako ezarritako barmenak eta kanporatze irizpideak betetzen ez zituzten artikulua baita ere baztertu ziren. Honekin batera, eskuragarritasunari zegokionez, testu osoa, hau da, “full text” lortzeko pausua eman zen, testu osoa lortu ezin ziren artikulua baztertu. Behin hau eginda, full text-ak irakurri eta irakurketa kritikoaren gidoia pasatu zitzaizen, lanerako erabiliko ziren behin betiko artikulua zehaztu.

Datu baseetan egindako bilaketaz gain, eskuzko bilaketa bat ere aurrera eraman zen, horretarako RNO, NICE eta Science Direct editorialak, praktika klinikorako gidak eta larrialdi pediatrikoekin erlazionatutako aldizkariak aztertu ziren. Honetaz gain, zenbait artikulua landu ondoren, hauen bibliografia aztertu eta bi artikulutako bibliografiatik artikulua bana eskuratu ziren 2 ikerketa bilaketa orokorrera gehitu. Eskuzko bilaketan lortutako artikuluen hautaketa egiteko, datu baseetan erabiliko hautaketa prozesu berdina erabili zen. **(3. Eranskina: Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritiko)**

Azkenik, guztira 19 artikulua aukeratu ziren. Hauetatik 2 ausazko ikerketa kuantitatibo esperimentalak ziren, 6 ikerketa kuantitatibo deskriptibo trantsertsalak, 6 kohortezko aurrerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko, kohortezko atzerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko 1, 2 literaturaren berrikusketak, berrikusketa sistematiko 1 eta azkenik praktika klinikorako gida 1 **(4. eta 5. Eranskinak: Fluxu diagrama eta kontsultatutako literaturaren laburpen-etaulak)**.


AZTERTZEKO ETA INTERPRETATZEKO PROZESUA

Hautatutako 19 artikulua irakurri eta sakondu ondoren, kategorien arabera analisia egin zen. Artikuluetan landu ziren puntu garrantzitsuenak aztertu, helburuari erantzuna emateko lana 4 kategoria nagusitan banatu zen. Alde batetik, eskala bakoitza pasatzeko behar zen denbora aztertu zen, eskala hauek, 5 minutu baino gehiagotan edo gutxiagotan pasatzen ziren kontuan izanda. Beste aldetik, eskalen formatuaren sinpletasuna ikusi zen, kontuan izanik ea eskala pasatzeko algoritmorik behar zen edo ez. Jarraitzeko eskalaren interpretazio eta ebaluazio aztertu zen, hauek sinpletan edo konplexuetan bereiziz. Azkenik eskala bakoitza pasatzeko, profesionalak formakuntzarik behar zuten edo ez kontuan izan zen **(6. Eranskina: Zuhaitz kategoriala)**.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Gaur egungo suizidio zein ideia suiziden kopuruaren hazkuntzak, mundu mailan prebentzio neurri desberdinak matxan jartzea eragin du¹⁻³. Neurri egokiak erabilita, suizidioa prebenigarria dela ikusi da, beraz, suizidioaren detekzio goiztiarrerako, larrialdi zerbitzuetako triajearen erizainek erabiltzen dituzten eskalen inguruan burututako ikerketen emaitzak aztertu dira^{6,9}. Eskala hauen propietateak zein berezitasunak azaltzeko helburuarekin aurrera eraman zen bilaketa bibliografiko hau.

Horretarako, 19 artikulu irakurri ziren. 1. figura zehazten den moduen, hauetatik 2 ausazko ikerketa kuantitatibo esperimentalak ziren, 6 ikerketa kuantitatibo deskriptibo trasbertsalak, 6 kohortezko aurrerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko, kohortezko atzerabegirako ikerketa kuantitatibo analitiko 1, 2 literaturaren berrikusketak, berrikusketa sistematiko 1 eta azkenik praktika klinikorako gida 1.



Aukeratutako artikuluak irakurri heinean, larrialdi zerbitzuetako erizainek gehien bat erabiltzen dituzten eskalen zerrenda bat egin zen, gerora eskala hauen ezaugarriak aztertzeko. Ondorengoak ziren aurkitutako eskalak: Columbia-Suicide Severity Rating Scale (C-SSRS) eskala, Ask Suicide-Screening Questions (ASQ) eskala, Risk of Suicide Questionnaire (RSQ) eskala, Suicidal Ideation Questionnaire (SIQ) eta Suicidal Ideation Questionnaire Junior (SIQ-JR) eskalak (**7. Eranskina: Screening eskalak**).

Behin artikulu guztiak landuta eta eskala desberdinen ezaugarriak aztertuta, kategorien inguruko analisi bat egin zen, lortutako emaitzak 4 kategoria desberdinetan sailkatuz. Kategoria hauek eskalen erabilgarritasuna neurtzeko parametroen arabera sailkatu ziren, azken finean, eskala bat ez zen erabilgarria izango hau pasatzea zaila, konplexua edota neketsua bada. Lehenik eta behin, eskala bakoitza pasatzeko behar den denbora landu zen, hauek 5 minutu baino gehiago edo gutxiagotan bereiziz. Bigarrenari dagokionez, eskalaren formatua aztertu zen, algoritmoduna edo algoritmo gabea bereiziz. Hirugarrenean berriz eskalaren interpretazio eta ebaluazioa kontuan izan zen, simple edo konplexuetan bereiziz. Azkenik, laugarren kategorian, eskala hauek pasatzeko prestakuntzarik behar den aztertu zen.

Lortutako 19 artikuluek, eskala desberdinei buruzko informazioa ematen zuten, hauetatik zortzi artikuluk C-SSRS eskalaren inguruan hitz egiten zuten, beste zortzik ASQ eskalaren inguruan baita ere, RSQ eskalaren inguruan 7 artikuluk hitz egite zuten eta azkenik, SIQ eskalaren inguruan 9 artikulu zeuden eta SIQ-JR eskalen inguruan 13 artikulu.

Lehenik eta behin, topatutako eskala guztien deskripzioa egin zen, bakoitzaren ezaugarriak sakonean ezagutzeko, 1. taulan islatuta daudelarik.

Columbia-Suicide Severity Rating Scale (C-SSRS) eskala

Larrialdi zerbitzuetan zein osasun zentroetan, nerabeen zein helduen suizidio ideiak edota jokabide suizidak baloratzeko erabiltzen den eskaletako bat da²³⁻³⁰. Eskala hau bi azpieskaletan banatzen da. Alde batetik ideia suizidak aztertzeko eskala dago, honen barnean suizidio ideien larritasuna aztertzeko 6 item daude, heriotza ideien presentziatik ideia hauek aurrera eramateko plana aztertzeraino. Honetaz gain, suizidio ideien intentsitatea ere aztertzeko 5 item daude. Azken atal hau bakarrik betetzen dute larritasunaren ataleko item batean "BAI" erantzun duten nerabe zein helduek. Beste aldetik, jokabide suizidak baloratzeko eskala dago. Azpieskala hau 5 itenez osatuta dago²⁴. Hau kontuan izanik, C-SSRS eskala pasatzeko 2-10 minutu inguru behar dira, lehenago esan bezala, kasu batzuetan ez delako eskala osoa pasatu behar²³⁻²⁵.

Eskala hau pazienteak nork bere buruari edota erizainak berak pasatzeko prestatuta dago baina emaitzen interpretazioa egiteko erizainak formakuntza minimo bat jaso behar du, screening faltsuak edota interpretazio desegokiak ekiditeko²³⁻²⁵.

Ask Suicide-Screening Questions (ASQ) eskala

Batez ere larrialdi zerbitzuetan baina baita ere arreta primarioan, suizidio arriskua ebaluatzeko erabiltzen den 4 itemeko eskala da. Galdera hauetakoren batean baiezko bat ematen bada, screening-a positiboa dela esango da. 10-21 urte bitarteko gazteetan zein helduetan aplika daiteke, arazo psikiatrikoak izanik edota hauek izan gabe^{25,30-33}.

Eskala hau erizainak pazienteari pasatzeko prestatuta dago, 2 minutu baino gutxiagotan. Honetaz gain, erizainak ez du formakuntzarik behar eskala hau pasatzeko, interpretazio aukerarik ez egoteak, screening positibo faltsuak agertzea murrizten baitu^{23,25,30,33}.

Risk of Suicide Questionnaire (RSQ) eskala

Larrialdi zerbitzuetako triajeon, erizainak, haur eta nerabeen⁸⁻²¹ suizidio arriskua baloratzeko 4 galderako eskala bat da^{23,34-36}. Hurren kasuan, erantzun nahi ez badute edo erantzuteko gai ez badira, beraien gurasoek hauen ordean erantzuteko aukera daukate. Erantzunik jasotzen ez bada, screening-a positiboa dela kontuan hartuko da. Galdera hauen erantzuna “BAI”, “EZ” edo “Ez du erantzuten” izan daitezke. Hauetako galderaren baten baiezko bat agertzen bada, zuzenean screening-a positiboa dela esango da^{35,37}. Erizainek pasatzen duten eskala hau pasatzeko, 2 minutu baino gutxiago behar dira eta profesionalak ez dute formakuntzarik jaso behar, eskala honek interpretazio arrisku urria duelako, screening positibo faltsuak baztertuz^{23,38}.

Suicidal Ideation Questionnaire (SIQ) eta Suicidal Ideation Questionnaire Junior (SIQ-JR) eskalak

Batez ere larrialdi zerbitzuetan suizidio ideien larritasuna baloratzeko nork bere buruari pasatzen dion eskala bat da. Eskala burutuko duen pertsonaren adinaren arabera bi bertsio daude non zenbait ideien agerpenaren frekuentziari buruz galdetzen den. Ideien agerpen hau Likert azpieskala baten bitartez baloratzen da, item bakoitza 0tik 7ra baloratuz, 0 “inoiz ez” eta 7 “ia egunero” izanik. Item bakoitzean lortzen diren puntuak batuz emaitza totala lortzen da^{36,39}.

Suicidal Ideation Questionnaire (SIQ)

Eskala hau 15 urte edo gehiago dituzten pazienteen ideia suiziden larritasuna baloratzeko erabiltzen da. 30 itemez osatuta dago eta hauetako bakoitzean lortutako puntuak batuz, 0 eta 180 tarteko puntuazio bat lortu daiteke. Emaitza totala 41 puntu baino gehiago baldin bada, emaitza klinikoki esanguratsua dela esango da, screening-a positiboa izanik eta suizidio arriskua dagoela zehaztuz^{31,32,40,41}.

Honetaz gain, eskala honetan jokabide suizidaren adierazgarriak diren 8 item kritiko daude. Hauetako 3tan edo gehiagotan ideia hauen presentzia baldin badago, screening-a zuzenean positiboa dela esango da³².

Eskala hau pasatzeko 5-10 minutu behar dira eskalak dituen item ugariak direla eta. Honetaz gain, nahiz eta pazienteak bere buruari pasatu eskala hau, erizainak formakuntza bat behar du jasotako erantzunak interpretatzeko eta eskalari emaitza bat emateko^{25,37}.

Suicidal Ideation Questionnaire Junior (SIQ-JR)

Eskala hau 14 urte edo gutxiago dituzten pazienteen ideia suiziden larritasuna baloratzeko erabiltzen da. 15 itenez osatuta dago eta hauetako bakoitzean lortutako puntuak batuz, 0 eta 90 tarteko puntuazio bat lortu daiteke. Eraitza totala 31 puntu baino gehiago baldin bada, eraitza klinikoki esanguratsua dela esango da, screening-a positiboa izanik eta suizidio arriskua dagoela zehaztuz^{31,32,40,41}.

Honetaz gain, eskala honetan jokabide suizidaren adierazgarriak diren 6 item kritiko daude. Hauetako 2 edo gehiagotan ideia hauen presentzia baldin badago, screening-a zuzenean positiboa dela esango da³².

Eskala hau pasatzeko 5-10 minutu behar dira; eskalak dituen itemak kasu honetan urriagoak dira, baina pazienteak aldi berean adin gutxiagokoak dira, beraz denbora tarte hau behar da eskala hau aurrera eramateko. Kasu honetan baita ere erizainek formakuntza jaso behar dute eskalan jasotako informazioa interpretatzeko^{25,37}.

1. Taula: Eskalen ezaugarriak

	C-SSRS eskala ²³⁻³⁰	ASQ eskala ^{23,25,29-33,38}	RSQ eskala ^{23,34-38,41}	SIQ eskala ^{23,25,31,32,34-37,41}	SIQ-JR eskala ^{25,26,27,41,42,31,32,34-37,40}
Eskala pasatzeko behar den denbora	2-10 minutu	< 2 minutu	< 2 minutu	5-10 minutu	5-10 minutu
Formatuaren sinpletasuna	Algoritmoduna	Algoritmoduna	Algoritmorik ez	Algoritmorik ez	Algoritmorik ez
Interpretazioa eta ebaluazioa	Konplexua	Konplexua	Simplea	Simplea	Simplea
Formakuntza	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai
Lortutako artikuluetan eskalen presentzia	%42	%42	%37	%47	%64

Iturria: Egileak egindakoa

Eskala baten erabilgarritasuna neurtzen duten baloreak hurrengoak dira: eskala pasatzeko behar den denbora, formatuaren sinpletasuna, eskalaren interpretazio eta ebaluazioa eta azkenik eskala pasatzeko formakuntzarik behar den¹⁸.

Eskala guztien ezaugarriak ezagutu ondoren eta literaturan aurkitutakoan oinarrituz, eskalen erabilgarritasuna aztertu zen arestian aipatutako 5 irizpideen arabera. Honekin batera, irizpide hauek aurkitutako artikuluetako datu estatistikoekin batera azaldu ziren, 2. taulan zehaztuta daudelarik.

a) Eskala pasatzeko behar den denbora

Larrialdi zerbitzuetan aurrera eramaten den triajeak baimendu egiten du pazienteak arrisku klinikoaren arabera sailkatzea eta modu egoki batean gestionatzea, batez ere momentuko beharrek larrialdi zerbitzuetako errekursoak gainditzen dituztenean. Sailkapen hau egiteko gomendagarria da 5 minutu baino gutxiago hartzea, beraz, denbora hau irizpidetzat hartu zen artikuluen erabilgarritasuna neurtzeko²⁰.

Aukeratutako artikuluen %47ak^{23-26,29-33} erreferentzia egiten zioten jokabide suizidaren detekziorako eskalak pasatzeko behar den denborari. Eskala hauen artean, 2 eskala (ASQ eta RSQ) 5 minutu baino gutxiagotan pasa daitezke^{23,25,29,30}. Hirugarren eskala bat, C-SSRS eskala, hain zuzen, lehen esan bezala bi azpieskaletan banatuta dagoena, 5 minutu baino gutxiagotan pasa daiteke larritasuna aztertzeko azpieskalaren erantzun guztiak ezezkoak badira: bestela, ideien intentsitatea neurtzeko azpieskala pasatu beharko litzateke, 5 minutu baino gehiagoko tartea gaindituz^{23,24}.

Newton et al.²³, King et al.²⁷, Stanley et al.³², Horowitz et al.³⁵ eta King et al.-ek⁴⁰ egindako ikerketen arabera, nahiz eta SIQ eta SIQ-JR eskalak pasatzeko 5 minutu baino gehiago behar, eskala hauek hobeagoak zirela zioten, lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuagoak izanik ($\alpha = 0.94-0.97$; $p = 0.05-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik). Beste aldetik, nahiz eta 5 minutu baino gutxiagotan pasa daitezkeen eskalen inguruan egindako ikerketetan lortutako emaitzak estatistikoki ez hain esanguratsuak izan ($\alpha = 0.92-0.64$; $p = 0.04-0.01$, CI %95), 5 minutuko irizpidera hobe moldatzen dira^{23,31,33,34}.

Honetaz gain, Newton et al.²³, Gipson et al.²⁴ eta Thom et al.-ek²⁹ egindako ikerketetan C-SSRS eskalaren inguruan emaitza esanguratsuak lortu zituzten ($\alpha = 0.73-0.95$; $p = 0.06-0.02$, CI %95), kontuan izanik jasotako erantzunen arabera larrialdietako egoerara moldatu zitekeela edo ez.

b) Formatuaren sinpletasuna

Kontuan izan behar dugu eskala bat erabilgarria izateko, pasatzeko erraza izan behar dela; horretarako eskala baten formatua baita ere aztertu behar da, bere sinpletasun edota konplexutasuna zehazteko. Ildo honetan, sinpletzat hartuko dira galdetegia bera osatzen duten galderei erantzutea nahikoa duten inkestak. Aitzitik, konplexutzat joko dira, gerora interpretatzeko, erresoluzio-algoritmoa behar dutenak. Hau kontuan izanik, eskala hauek algoritmodunak edo algoritmo gabeak bezala sailkatu ziren²⁴.

Kategoria honi dagokionez, aurkitutako artikuluen %58ak^{23-25,30-35,37,40} eskalen formatuari buruz hitz egiten zuten. Jokabide suizidaren detekzio goiztiarrerako erabiltzen ziren eskalen artean, RSQ, SIQ eta SIQ-JR ziren formatuan algoritmorik ez zituzten eskalak. Newton et al.²³, King et al.²⁷, Stanley et al.³², Horowitz et al.³⁵ eta King et al.-ek⁴⁰ burututako ikerketetan, algoritmorik gabeko SIQ eta SIQ-JR eskalak, algoritmodunekin alderatuz, hobeak zirela zioten, pasatzeko errazagoak izateaz gain, lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuagoak izanik ($\alpha = 0.94-0.97$;

$p = 0.05-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik). RSQ eskalari zegokionez, Newton et al.-en²³ burututako ikerketan lortutako emaitzei erreparatur, emaitzak estatistikoki esanguratsuak izan arren ($p = 0.04$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik) Cronbach-en alfa balore minimoetan zegoen ($\alpha = 0.64-0.65$).

Beste aldetik, formatu algoritmoduna duten eskalei erreparatur, pasatzeko zailagoak izateaz gain, estatistikoki ez ain esanguratsuak ziren emaitzak lortu ziren ($\alpha = 0.73-0.95$; $p = 0.06-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik)^{23,24,29-31,33}.

c) Eskalaren interpretazio eta ebaluazioa

Behin eskalak pasatu ondoren, hauen interpretazioa konplexua ez izateak hauen erabilgarritasuna hobetzen du. Honen barruan, interpretazio sinplea edo konplexua bereizi ziren, hau da, erantzun bakar batek emaitza zuzen bat emanaz gero, interpretazioa sinplea zela esango zen. Beste aldetik, eskala bat konplexutzat hartu zen gehiketa edota erantzunen arteko loturaren bat egin behar bazen¹⁸.

Aurkitutako artikuluen %74ak^{23,25,29-36,37,40,41,43} eskalaren interpretazio zein ebaluazioaren inguruan erreferentzia egiten zuten. Hauen artean ASQ eta RSQ ziren interpretazio eta ebaluazio sinplea zutenak, hau da, baiezko erantzun bakar batek screening-a positibotzat jotzen zuten.

Newton et al.²³, King et al.²⁷, Stanley et al.³², Horowitz et al.³⁵ eta King et al.-ek⁴⁰ burututako ikerketetan, interpretazio sinplea zuten SIQ eta SIQ-JR eskalak, hobeak zirela zioten, interpretatzeko errazagoak izateaz gain, lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuagoak zirelako ($\alpha = 0.94-0.97$; $p = 0.05-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik). RSQ eskalari zegokionez, Newton et al.-en²³ burututako ikerketan lortutako emaitzei erreparatur, emaitzak estatistikoki esanguratsuak izan arren ($p = 0.04$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik) Cronbach-en alfa balore minimoetan zegoen ($\alpha = 0.64-0.65$).

Honetaz gain, Newton et al.²³, Gipson et al.²⁴, Thom et al.²⁹, Horowitz et al.³¹, Ballard et al.³³ eta Shapiro et al.-en³⁰ artikuluetan interpretazio konplexua duten eskalak konplexuagoak izateaz gain, estatistikoki ez ain esanguratsuak ziren emaitzak lortu ziren ($\alpha = 0.73-0.95$; $p = 0.06-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik).

d) Eskala pasatzeko formakuntza

Larrialdi zerbitzuetan erantzuteko abiadura azkarra izan behar da. Horretarako, eskala azkarrak erabiltzeaz gain, formakuntza gutxi behar dutenak pasatzea dirudi egokiena. Zenbait eskala pasatu ahal izateko profesionalek prestakuntza bat behar dute, interpretazioak zein screening faltsuak ekiditeko edota galderak planteatzeko modua egokia izateko, besteak beste. Honekin lotuta, eskala baten erabilgarritasunari erreparatur eskala batek formakuntzarik behar duen edo

ez kontuan izan behar da, azken finean, larrialdi zerbitzuetan dauden erizain jeneralistek, orokorrean, ez dute osasun mentaleko formakuntzarik edo espezializatorik jaso, beraz, profesional hauek burutu ahal dituzten eskalak erabilgarriagoak dira kasu honetan. Beraz, formakuntzarik behar den edo ez irizpidetzat hartu zen^{18,20}.

Aurkitutako artikuluen %68ak^{23,24,25-27,29-32,37,40,41,43} eskalak pasatzeko behar den formakuntzaren inguruan hitz egiten zuen, C-SSRS, SIQ eta SIQ-JR eskalak izanik formakuntza behar dutenak. Newton et al.²³, Gipson et al.²⁴, King et al.²⁷, Thom et al.²⁹, Stanley et al.³², Horowitz et al.³⁵ eta King et al.-en⁴⁰

lanetan formakuntza behar duten eskalen inguruan hitz egiten zen. Hauen arabera, nahiz eta formakuntza baten beharrak larrialdi zerbitzuetako erizain jeneralisten eskuhartzea zaildu, eskala hauek hobetoak zirela zioten, lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuagoak izanik ($\alpha = 0.73-0.97$; $p = 0.06-0.01$, CI [konfiantza tartea] %95ekoa izanik).

Beste aldetik, nahiz eta formakuntzarik behar ez duten eskalen inguruan egindako ikerketetan lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuak izan ($p = 0.04-0.01$, CI %95) baina Cronbach-en alfa balore minimoetan egon ($\alpha = 0.92-0.64$), formakuntzarik behar ez izateak erizain jeneralistek pasatu ahal izatea bermatzen du^{23,31,33,34}.

2. Taula: Eskalen datu estatistikoak

	C-SSRS eskala ^{23,24,29}	ASQ eskala ^{23,31,33}	RSQ eskala ^{23,34}	SIQ eskala ^{23,28,32,35}	SIQ-JR eskala ^{26-28,32,35,37,40}
Eskalaren fidagarritasuna (Cronbach-en alfa)	0.73-0.95	0.83-0.92	0.64-0.65	0.97	0.94
Sentsibilitatea (p balorea, CI %95)	0.02-0.06	0.04-0.01	0.04	0.05	0.05-0.01

Iturria: Egileak egindakoa

